

Asisko gutuna

2025ko martxoan 1. printzipioa. Egutero bilatzea Jainkoarekin harreman pertsonala 197. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Latinoamerikar autore batek esan zuen: "Erantzunak lortu genituenean, galderak aldatu zitzaizkigun". Bizitzan dena da aldaketa, baita fedean ere.

Gogoetarako gaia

Jainkoaren nobedadeari irekiak

Bizitza aldaketaz beteta dago. Denok dugu esperientzia hori, gazteak edo urteetan sartuak bagaude ere. Zenbat aldaketa eta zein sakonak gainera bizitza estreinatu genuenetik orain arte. Nork esango guri gerta zaizkigunak, izan diren eta betirako joanak diren nobedadeak, fikzioa zirudiena eta orain errealitatea dena? Ez bakarrik teknologian, bai eta harremanetan, politikan, modetan, ideologietan... Fedean ere bai.

Jainkoarekiko harremana ez da inoiz egonkorra izan, lortua, gure eskuetan daukaguna. Beti izan da mugimenduan, bilaketan, bidean. Esan diezaiotela Itun Zaharreko Israelgo herriari edo Jesusen dizipuluei. Ez gara egiez, dogmez eta doktrinez ari, Jainkoarekiko harremanaz baizik, fedez.

Horrela, etengabe aldatzen ari den mundu honetan, pertsona fededuna etengabeko aldaketan

dago Jainkoarekiko harremanean ere; izan ere, bizitzaren bihurtze bakoitzean Jainkoa bere zain dago, modu berrian beti. Horregatik, fedez ezin da inoiz hitz egin lortutzat, eskuratutzat. Fedea etengabeko irekitasuna izango da Jainkoak emango digun ezustekoari gure bizitzan eta munduarenean; beti. Zer proposatzen dit Jainkoak nire bizitzako aldi berri honetan, pertsona berri edo betiko hauekin, egoera berri edo adin berri honetan, estreinatzen ari garen etapan? Non erakusten dit Jainkoak bere aurpegia historia pertsonal, eliztar eta munduaren une honetan?

Itun Zaharrak dioenez, Moisesek Jainkoari zein izen zuen galdetzean, honek erantzun omen zion: "Ni naiz izango naizena", esanez bezala: "Erakutsiko dizuet nor naizen". Jainkoa beti dago izkina bakoitzaren bueltan, edozein dela ere izkina hau, nahiz eta ez iruditu. Garai berrietan murgiltzen gara, badakigulako nortaz fidatu garen.

Ebanjelioko pasartea: Lk 2,42-52

Jesusek hamabi urte bete zituen, jaietara joan ziren, ohi bezala. Jaiak amaiturik gurasoak etxera abiatu zirenean, Jesus haurra Jerusalemen gelditu zen, haiek jakin gabe. Erromeskideen artean zelakoan egun bateko bidea egin ondoren, haren bila hasi ziren ahaide eta ezagunen artean. Eta, aurkitzen ez zutelarik, Jerusalemera itzuli ziren bila. Hiru egunen buruan, tenpluan aurkitu zuten, lege-maisuen erdian eseria, entzun eta galde; entzuten zioten guztiak txunditurik zeuden erantzuntan azaltzen zuen argitasunagatik. Ikusi zutenean, harrিতuta gelditu ziren gurasoak, eta amak esan zion: "–Seme, zergatik egin diguzu hori? Ikusi zein larri genbiltzan aita eta biok zure bila!" Hark erantzun zion: "–Zergatik zenbiltzaten nire bila? Ez al zenekiten nik neure Aitaren gauzetan jardun behar dudala?" Baina haiek ez zuten ulertu zer esan nahi zuen. Jesus beraiekin Nazaretera jaitsi eta beraien menpe bizi izan zen. Amak gogoan hartzen zituen gertakari guztiok. Jesus haziz zihoan, bai jakinduriaz, bai gorputzez, eta Jainkoak eta gizakiek gero eta gogokoago zuten.

Frantziskotar espiritualtasuna

Garai batean, Frantzisko dohatsua Santa Marian bizi zela, espirituko tentaldi guztiz larria etorri zitzaion, bere arimaren probetxurako. Hain zegoen etsekabetua espirituz eta gorputzez, non zenbaitetan alde egiten baitzuen anaiartetik ezin baitzen, ohi bezala, alai zaldu anaien aurrea, tentaldi hura zela eta.

Gogor egoten zion bere buruari, jateari ez ezik, hitz egiteri ere utziz; sarri joaten zen otoitz egitera eliza ondoko basora; han bere samina hobeto hustu eta jaunaren aurrean malkoak ugariago isur zitzakeen, dena dezakeen Jaunak larrialdi handi hartan zerutik sendabidea bidal ziezaion.

Bi urtetik gora tentaldi hark gau eta egun atsekabetua egon ondoren, egun batez, Santa Maria elizan otoitzean ari zela, Ebanjelio santuko hitzok entzun zituen bere barnean: Fedea bazenu, mostaza-hazia bezain txikia izanik ere, mendi honi "aldatu hemendik hara" esanez gero, aldatu egingo litzateke. Frantzisko santuak erantzun zuen: «Zein da mendi hori?» Erantzun zitzaion: «Mendi hori zure tentaldia da». Frantziskok, orduan: «Jauna, gerta bekit zuk esan bezala». Eta une berean libre gelditu zen, inoiz halako tentaldirik izan ez balu bezala. (PerLe 63)

Otoitza

Gehiago ez bilatzeko garaia da...

Itxaroteko garaia da.

Pazientzia izateko garaia da.

Eta beti bezala: **fidatzeko** garaia da.

Fidatzea funtsezkoa da.

Erantzun guztiak eduki nahi ez izatea,

Ez saiatu Jainkoari "asmatzen",

Bere planak aurreratzea nahi ez izatea.

Bera da sorpresen Jainkoa!

Utzi harritzen

Ireki zaitetz Bere nobedadera.

Gutuneko azken hitzak

Ez izan inoiz beldurrik etorkizun ezezaguna Jainko ezagun baten esku uzteko.

Corrie ten Boom (Idazle eta erlojugile holandarra)

2025ko urtarrileko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate erreferentzia guztiak:

1. Mk 10, 13-16	8. Lk 5, 27-32	15. Mt 5, 43-48	46	28. Mk 12 28-34
2. Lk 6,39-45	9. Lk 4,1-13	16. Lk 9,28b-36	22. Lk 15, 1-3.11-24a	29. Lk 18, 9-14
3..Mk 10, 17-27	10. Mt 25,31-46	17. Lk 6, 36-38	23. Lk 13,1-9	30. Lk 15,1-3.11-32
4. Mk 10, 28-31	11. Mt 6, 7-15	18. Mt 23-1-12	24. Lk 4, 24-30	31. Jn 4, 43-54
5. Mt 6,1-6.16-18	12. Lk 11, 29-32	19. Mt 1, 16.18-21.24 ^a	25. Lk 1, 26-38	
6. Lk 9,22-25	13. Mt 7, 7-12	20. Lk 16, 19-31	26. Mt 5,17-19	
7. Mt 9,14-15	14. Mt 5, 20-26	21. Mt 21, 33-43.45-	27. Lk 11, 14-23	

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org



Asis Sarea

646 21 48 96

Otsaileko otoitza hilaren
27ean izango da